

BOTTOM UP PROIEKTUAK ONARTU ETA EBALUATZEKO OINARRIAK

2018KO KONTRATU PROGRAMA

Bottom up proiektuak dira Kontratu-programaren kalitate eranskinaren ebaluazio ereduen barruko atal bat. Proiektuok abiapuntu izan nahi dute, jardunbide egokiak hedatzeko eta osasun-sare osora hedatzekoak diren hobekuntzak emateko. Atal honek hartzen du, gutxi gorabehera, Kontratu-programaren kalitate eranskineko puntu guztien %15a.

1.- Bottom up (BU) proiektuen definizioa, garatze-esparrua eta onartzeko nahiz baztertze irizpideak:

1.1. Definizioa:

Bottom up proiektuak ekimen berriak dira, zerbitzu-erakundeetatik sortuak, eta asistentzia-sareko profesionalen lidergopean diseinatuta eta garatuta. Ondorengoak daude sartuta: jardunbide egokiak, erabiltzaileei begira zerbitzuen kalitatea hobetzeko proiektuak, antolakuntza proiektu berritzaileak edo beste erakundeetan jadanik garatuta dauden ekimenak. Eta helburu dute profesionalen ekimen berritzaileak biltzea eta laguntzea, baldin eta erakundeen xede estrategikoekin bat badatoz eta diseinu egokia badute. Proiektuon filosofia jakintza sortzea da eta erakunde sanitarioetan berritzeko gogoia sustatzea.

Bottom up proiektuak batez ere, izango dira:

- Berritzaileak
- Pazienteen eta biztanleriaren osasuna hobetzea sustatuko dute
- Proiektua eremu edo erakunde gehiagotara zabaltzeko aukera jasoko dute.

Proiektuek arduradun edo koordinatzaile bakarra izango dute, eta bera arduratuko da konpromiso guztiak (ekintzak, kronograma, azken ebaluazioa, etab.) betetzeaz.

1.2.- Proiektuen garatze-esparrua:

Proiektuak, Kontratu-programaren gidalerro eta dimentsioei loturik egongo dira:

1. Baliabide
2. Zerbitzuak
3. Arreta Integratua
4. Segurtasuna
5. Eraginkortasuna
6. Ekitatea
7. Pazienteengan oinarritua
8. Irisgarritasuna eta itxarote-zerrendak
9. Efizientzia

Onartuak izan daitezke Osasun Sailaren, Osakidetza eta 2013-2020 Osasun Planaren ildo estrategikoei lotuta dauden proiektuak, eta goian aipaturiko dimentsio barruan ez daudenak.

Urtero, proposatuko dira lehentasunezko, edo estrategikoak diren interes handiko gai batzuk erakunde sanitarioek garatu ditzaten.

2018 urterako lehentasunezko gaiak honakoak izango dira:

- Minaren abordajea.
- Koordinazio sozio-sanitarioa.
- Erakunde sanitario desberdinen arteko koordinazioa.
- Zainketa aringarriak.
- Desinbertsioa osasunean.
- Ekitatea eta osasunean desberdintasunak
- Lehen mailako arretatik datozen proiektuak edo lehentasun eremua lehen mailako arreta dutenak.
- Berriz ospitaleratzen direnen kopurua gutxitzea (Araba).
- Bihotz-errehabilitazioa (Gipuzkoa).
- Errehabilitazioa: bihotzekoa, neumologikoa, osteomuskularra, iktus (Bizkaia).
- Parte-hartze esperientzia berritzaileak, pazienteen aukerak eta bizipenak kontutan izango dituztenak (Bizkaia).

1.3.- Onartzeko eta baztertzeko irizpideak

1.3.1.- Onartzeko irizpideak

Aurkeztutako proiektuek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Aipatu diren ildoetako bati loturik egongo dira.
- Beharrezkoa da eskabide-orria ondo beteta egotea.

- Asistentzia-erakundearen gerentziak edo mediku zuzendaritzak eta proiektuaren arduradunak izenpetuta eta onartuta.
- Ikerketa egitea egokia eta egingarria dela justifikatzea.

1.3.2.- Baztertzeko irizpideak

Baztertzeko irizpideak honako hauek dira:

- Gutxieneko puntuaziora (5 puntu) heltzen ez diren proiektuak.
- Ikerketa klinikoa eta prestakuntza planei buruzko proiektuak.
- Eskabide inprimakia osatugabea edo gaizki beteta egotea.
- Osasun erakundearen gerentziak edo Zuzendaritza medikuak izenpetu edo baimendu ez dituen proiektuak.
- Kontratu-programaren barruko adierazleren batetan sartuta dauden proiektuak, ezer erantsi gabe. Halaber, ukatu baino lehenago, erakundeei aukera emango zaie, proiektua sartzeko arrazoiak justifikatzeko.
- Dagoeneko amaituta dauden proiektuak eta aurrez finantzatu egin direnak baina beste zerbitzu-erakunde batzuetara hedatzekoak ez badira, edo helburu nahiz ekintza gehiago proposatzen ez dituztenak.
- Zerbitzu baten eguneroko jarduerak finantzatzeko proiektuak, betiere lehentasunezko gaiak badira.
- Mediku egoiliarren (MIR) prestakuntza ikuskatzeko proiektuak.
- Beste bide batetik (FIS, Osasun Saila, Kronikgune, Foru Aldundia, etab.) % 100ean finantzatu diren proiektuak.
- Beste erakundeekin lankidetzat eskatzen duten proiektuak, aipatutako erakundearen adostasunik gabe.

Eskabideak ikusita proiektu batek betetzen ez baditu onartzeko irizpideak, Osasun Ordezkaritzak jakinaraziko dio proiektuaren arduradunari, 10 eguneko epea emanaz okerrak zuzentzeko.

2.- Eskabideak aurkeztea; proiektuak onartzea, baloratzea eta lehenestea/ponderatzea

2.1.- Aurkezpena:

Eskabideak aurkezteko epea 2017/06/09tetik 2017/07/28ra bitartekoa da.

- Eskakerak egiteko, propio diseinatu den eskabide-orria bete beharko da eta Osasun Lurralde Ordezkaritzara bidaliko dira, posta-helbide honetara: EstudiosPlanificacionyEvaluacion@euskadi.eus.
- Eskabidearekin batera eskuduna den Etika Batzordearen baimena aurkeztuko da, hala eskatzen denean.

2.2.- Eskabideen onarpena

Eskabideak onartuak izateko, beharrezkoa da eskabide inprimakia era egokian betetzea eta atal guztiak argi deskribatzea:

- Lehen aipatu diren onartzeko irizpide guztiak betetzea.
- Epe barruan aurkeztuko dira eta okerrak zuzenduta (hala eskatu bada), azken hauek ere emandako epean.
- **Eskabideak**, bere osotasunean beteko dira, ondorengoa baieztatuz: proiektuaren **helburuak** argi beteko dira; **aurrekariak** (abiapuntu egoera); garatu beharreko ekintzak proposaturiko interbentzio gisa eta **metodologia** (diseinua, populazioaren azterketa, gaiarekin lotura duen bibliografia, aztertu beharreko aldagaiak, azterketa mota).
- Proiektuak itxaroten diren emaitzekin lotutako atal bat edukiko du, **emaitzei buruzko adierazle** gisa, planteatutako interbentzioaren ondorioz.
- Aurkeztutako kronogramak, ahal den neurrian, indarrean dagoen Kontratu-programak ezartzen dituen denborarekin bat egingo du. Onartutako proiektu batek, indarrean dagoen Kontratu-programaren iraupen luzeagoa izanez gero, erakundeak proiektua hurrengo deialdian aurkeztuko du. Horrela egin ezean, dokumentu bidez egiaztatuko du: amaiera, ezarritako helburuen betetzea eta aurreikusitako ekintzen burutzea.

2.3.- Proiektuen balorazio eta onarpena

- Proiektuak bi hileko epean ebaluatu, onartu edo ukatuko dira, aurkezteko aldia amaitzen denetik (2017 urteko irailaren 30ean baino lehenago).
- Osasun Ordezkaritzako Osasun Plangintza, Ikerketa eta Ebaluazioa zerbitzua arduratuko da proiektuak ebaluatu eta onartzeaz. Teknikari talde batek ebaluatuko ditu, berdinen arteko ikuskapen-sistema bidez, onartze-irizpideak betetzen dituzten eskabideak.
- Proiektuan aldaketak egitea proposatu ahalko die balorazio lantaldeak parte hartzaileei, proiektua onartua izan dadin.

- Eskabidea ebatzi ondoren, erabakia zerbitzu-erakundearen gerentzia edo zuzendaritza medikuetara helaraziko da, eta azken hauetatik proiektuaren arduradunari.
- Onarturiko proiektuak Kontratu-programan (2018 urtekoan) sartuko dira.
- Kontratu-programaren II eranskinean agertzen da, esleitu daitekeen puntuaziorik altuena. Horretara heltzeko erakundeek ondorengo egingo dute:
 - Gutxienez 2 proiektu: Osasun Mental Sareak, Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak eta Arabako Errioxa ESIa.
 - Gutxienez 3 proiektu mota 2dun ESIak: Debagoiena, Debabarrena, Bidasoa, Tolosaldea, Goierri-Urola Garaia, Uribe eta Barakaldo-Sestao.
 - Gutxienez 4 proiektu 1 motadun ESIak: Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces, Donostialdea, Bilbao-Basurto, Barrualde-Galdakao eta Araba.
- Aurkezten diren proiektu kopurua gutxiago denean, esleitutako puntuak proportzionalki gutxituko dira.
- Gehienez, 15 proiektu bidaliko dira Osasun Lurralde Ordezkaritzara ESI bakoitzeko.
- Ebaluazio irizpideak 1. taulan ezarriko dira.

1. taula - Eskaturiko proiektuak baloratzeko irizpideak.

Balorazio-irizpideak		Neurketa	Gehieneko puntuak
1	Inplikaturiko asistentzia-mailako kopurua • LM • AE • OMS • Egonaldi ertain/luzea • Osasun Publikoa	2 maila	0,25
		3 maila	0,5
		4 maila	0,75
		5 maila	1
2	Emaizten erabilera praktikoa	Erakundean eta/edo osasun sisteman	0-0,5
		Osasunean emaitzak (paziente edo familietan)	0-1,5
3	Proiektuaren kalitatea	Aztertutako populazioa, helburuak, ekintzak, metodologia	0-3
4	Hedapenaren egingarritasuna		1
5	Berrikuntza		1
6	2018ko Kontratu-programan lehenetsitako gaiak		2
Guztira			10

4.- Proiektuek Kontratu-programan (KP) duten balioa:

- Proiektu-atalerako izango da Kalitateari dagokion aurrekontuaren %15a (15 puntu).
- 15 puntuen banaketa urtero berrikusiko da, Osasun Sailaren ildoak kontuan hartuz.

4.- Asistentzia-erakunde eskatzailearen eta proiektuko taldearen betebeharrak eta konpromisoak

- Asistentzia-erakunde eskatzaileak eta proiektuaren arduradunak hitzematzen dute proiektuaren jarraipen eta ebaluazio-txostenak bete egingo dituztela eta Lurralde Ordezkaritzara bidali.(eranskina)

5.- Proiektuaren jarraipen eta ebaluazioa

- Kontratu-programa indarrean dagoen epealdian zehar, Osasun Ordezkaritzetako teknikariei proiektuaren nondik norakoak ikusteko jarraipena egitea posible izango zaie. Horretarako jarraipen txostena eskatu ahal izango dute edo erakundeei bisita egin. Helburua: proiektuak sustatzen dituzten profesionalen eskutik proiektuak zuzenean ezagutzea, ordura arte eskuragarri dauden datuekin.

- Kontratu-programaren ebaluazio fasean (urriaren 31a baino lehenago) proiektuko arduradunek emaitzak aurkeztuko dituzte beraien ebaluatzaile taldeetan; horretarako berriaz diseinatutako formularioa bete (eranskina). Aipaturiko formularioa oinarri izango da proiektuaren azken ebaluaketa burutzeko. Formularioaz gain, egoki irizitako dokumentazio osagarria aurkezteko aukera egongo da.

- Gerta daiteke, kronograma dela eta edo atzerapenak izateagatik proiektu batzuen emaitzak prest ez egotea Kontratu-programaren ebaluazio formala burutzen denean. Kasu hauetan, posible izango da, emaitzen txosten osagarria exijitzea.

- Azken txostena Osasun Lurralde Ordezkaritzara bidaliko da, posta-helbide honetara: EstudiosPlanificacionyEvaluacion@euskadi.eus. Proiektuaren arduradunak eta erakunde sanitarioko gerentzia edo Zuzendaritza medikuak izenpetuta egongo da.

- Osasun Plangintza eta Ebaluazioa zerbitzuaren ardura izango da azken txostena eta lorturiko emaitzak ebaluatzea, 2. taulan ezarritako irizpideei jarraituz.

2. taula: Azken ebaluazioa egiteko irizpideak, 2018 urria

Balorazio-irizpideak	Neurketa	Atalkako puntuazioa
Ekintzen betetze-maila ekintzak	Beteta %100 (5 puntu) Beteta > %75 <%100 (4 puntu) Beteta > % 50 - % 75 (3 puntu) Beteta > % 25 - % 50 (2 puntu) Beteta < % 25 (1 puntu) Ez dira bete (0 puntu)	5 puntu (gehienez)
Emaitzak, jarritako helburuekin egokituta (3 puntu, gehienez)	Emaiza osoak aurkezten dira (3 puntu)	3 puntu (gehienez)
	Partzialki aurkezten dira (1,5 puntu)	
	Ez dira aurkezten (0 puntu)	
Aurkezturiko agirien kalitatea (2 puntu, gehienez)	Dokumentazio egokia (2 puntu)	2 puntu (gehienez)
	Nahikoa baina osatu gabe (1 puntu)	
	Nahikoa ez edo ez egokia (0 puntu)	
PROIEKTUAREN PUNTUAK GUZTIRA		(gehienez 10 puntu)

Amaierako puntuazio orokorra izango da, azken ebaluaziora aurkezturiko Bottom up proiektu guztiek lorturiko puntuazioren batuketatik lortutako emaitza, eskabidea egin den momentuan hasierako puntuazioa proportzionalki baloratuta.

6.- Proiektuen hedapena

Urtero, Lurralde Ordezkaritza bakoitzak, erakunde sanitarioekin kontsultatu ondoren, hautatu egingo ditu bere lurraldean balorazio eta proiektzio handiagoa izan duten ikerlanak. Helburua: maiatza-ekaina aldera aurkezpen-jardunaldi bat egitea sare-asistentzial guztientzako interesgarriak eta aplikagarriak izan daitezkeen ikerketen berri emateko.

7.- Ez-betetzeak:

Eginbeharrak ez betetzeak galera ekarriko dio proiektuari: jaitziera egongo da Kontratu-programan esleitutako puntuazio orokorrean.